

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

23. zenbakia

Data 2007-02-01

2787 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GFA - FISKALITATEA ETA FINANTZAK

Urtarrilaren 22ko 34/2007 FORU AGINDUA, aitorpen-likidazio batzuk bide telematikoz aurkezteko prozedurari buruzko otsailaren 25eko 165/2004 Foru Agindua aldatzekoa.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEPARTAMENTUA

Urtarrilaren 22ko 34/2007 FORU AGINDUA, aitorpen-likidazio batzuk bide telematikoz aurkezteko prozedurari buruzkootsailaren 25ko 165/2004 Foru Agindua aldatzen duena.

Abenduaren 22ko 1.090/2006 Foru Aginduaren xedea zen 15/2005 Foru Aginduan jasotako diseinu fisiko eta logikoak aldatzea, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urteko aitorpen-likidaziorako erabiltzen diren 390, 391 eta 392 eredueta; eredu horiek 15/2005 Foru Aginduan araututa zeuden. Era berean, otsailaren 25eko 165/2004 Foru Aginduan jasotako aitorpen-likidaziorako ereduaren zerrenda zabaltzea ere bazen haren helburua; hori zela eta, zerga berezien 560, 561 562, 563, 564 eta 566 ereduak sartu ziren.

Foru agindu honen xedea da, baita ere, otsailaren 25ko 165/2004 Foru Aginduan aipatzen diren aitorpen-likidazioen ereduaren zerrenda zabaltzea, haren barruan zerga berezien 569 ereduak sartuz.

Hori dela eta, hau

XEDATU DUT

Artikulu bakarra.

Hainbat xedapen aldatu dira Aitorpen-likidazio batzuk bide telematikoz aurkezteko prozedura arautzen duen otsailaren 25ko 165/2004 Foru Aginduan. Hauek dira:

1. Honela aldatu da bere 2 artikuluko 3. apartatua:

«3. Aseguru Primaren gaineko Zergaren 430 eta 480 ereduak eta Zerga Berezien 560, 561, 562, 563, 564, 566 eta 569 ereduak formulario bidez baino ezingo dira aurkeztu. Horretarako, beharrezko formularioa bete eta telematikoki aurkeztuko da, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuaren webgunetik abiatuta.»

2. Eredu hau gehitu zaio I. eranskinean jasota dagoen zerrendari:

I. ERANSKINA

Prozedura honen bidez aurkez daitezkeen aitorpen-likidazioak eta urteko aitorpen-laburpenak.

Hidrokarburoaren Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren aitorpen-likidazioa eta hornikuntza salbuetsien zerrenda.	Modelo 569 eredua	Declaración-liquidación y relación de suministros exentos del Impuesto sobre Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos.
--	--------------------------------	---

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2007ko urtarrilaren 22a.—Juan Jose Mujika Aginagalde, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatua.

(441) (1090)